



# Kontseilu errektoreko batzordeak

Kontseilu Errektorea kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza organo nagusia da, kooperatibak dituen arriskuak zaindu eta gainbegiratzeko azken arduraduna.

4 aholku-batzorde ditu, eta horien osaera eta eginkizunak hurrengo orrialdeetan deskribatzen dira.





# Ikuskaritza eta araudia betearazteko batzordea

## Konposaketa

Izena	Kargua
Juan José Álvarez Rubio	Lehendakaria
Ricardo Pérez Aguado	Kidea
Xabier Sagarna Arrizabalaga	Kidea
Nagore Larrabeiti Libano	Kidea

## Funtzioak

Ikuskaritzako eta araudia betearazteko batzordea zeregin bereziak Kontseilu Errektoreko araudiaren 10. artikuluan jasota daude.

- Batzar Nagusiari Komitearen eskumenekoak diren gaietan eta, bereziki, ikuskapenaren emaitzari buruz planteatzen diren gaien berri ematea, eta azaltzea nola lagundu duen auditoretzak finantza-informazioaren osotasunean eta zer eginkizun bete duen Komiteak prozesu horretan.
- Erakundearen barne-kontrolaren, barne-ikuskapenaren eta arriskuak kontrolatzeko sistemen eraginkortasuna gainbegiratzea, eta kontu-ikuskatzailearekin auditoretzaren lanean atzemandako barne-kontrolaren ahultasun esanguratsuei buruz eztabaidatzea, independentzia hautsi gabe. Horretarako, gomendioak edo proposamenak aurkezten ahalko dizkiote Kontseiluari, baita haien jarraipena egiteko epea ere.
- Nahitaezko finantza-informazioa prestatzeko eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea eta haren osotasuna babesteko gomendioak edo proposamenak aurkeztea Kontseiluari.
- Kontseilu Errektoreari kontu-auditoreak edo auditoretza-sozietateak hautatzeko, izendatzeko, berrautatzeko eta ordeztzeko proposamenak proposatzea, Batzar Orokorraren mende jar ditzan, eta hautaketa-prozesuaz arduratzea, dena aplikatzekoa den araudiaren arabera, bai eta haien kontrataziorako baldintzak ere, eta auditoretza-planari eta haren exekuzioari buruzko informazioa erregularoki eskatzea, bere funtzioak betetzean independentziari eusten laguntzeaz gain.



- e. Kontu-auditoreekin edo auditoretza-sozietateekin harremanetan egotea, horien independentzia arriskuan jar dezaketen gaien eta kontu auditoretzaren prozesuarekin zerikusia duten bestelakoen berri izateko eta batzordean aztertzeko. Era berean, kontu-auditoretzaren alorreko legerian eta arauetan aurreikusita dauden gainerako jakinarazpenak ere jasoko ditu. Dena den, kontu-auditoreek edo auditoretza-sozietateek urtean behin berretsi beharko diote (idatziz) beraiekin zuzeneko edo zeharkako lotura duen entitatearekiko (edo entitateekiko) independenteak direla. Ildo beretik, auditore edo sozietateok nahiz beraiei atxikitako pertsonak edo entitateek loturadun beste entitate horiei emandako zerbitzu osagarriari buruzko xehetasunak jakinarazi beharko dituzte, 2015eko uztailaren 20ko 22/2015 Legeak, Kontu Auditoretzarenak, eta 537/2014 EB Erregelamenduak xedatutakoarekin bat.
- f. Urtean behin, kontu-ikuskaritzaren txostena argitaratu aurretik, kontu-ikuskatzaileen edo ikuskaritza-sozietateen independentziari buruzko irizpena jasoko duen txostena argitaratzea. Txosten horretan, aurreko atalean aipatu diren zerbitzu osagarrien prestazioari buruzko iritzia jaso beharko da.
- g. Batzar Nagusiak edo Kontseiluak onartu behar dituen binkulatutako eragiketen berri ematea, eta konpainiak ezarritako barne-prozedura gainbegiratzea, onetsi dituen eragiketetarako.
- h. Aldez aurretik, Kontseilu Errektoreari legean, estatutu sozialetan eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduan aurreikusitako gai guztien berri ematea, eta, bereziki:
- Finantza-informazioa eta kudeaketa-txostena, behar denean informazioa ez-finantzarioa jasotaz, erakundeak aldizka publiko egin behar duena.
  - Xede bereziko erakundeetan edo paradisu fiskaltzat hartzen diren herrialde edo lurraldeetan helbideratutako erakundeetan partaidetzak sortzea edo erostea.
- i. Jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboko arauak betetzen direla gainbegiratzea.



- j. Barne-auditoretzaren area ebaluatzea eta bere funtzioak eta baliabideak onartzea, bai eta bere jarduera-planak urtero Kontseiluari aurkeztea ere, erakundearen benetako beharretarako egokiak direla ziurtatzeko. Era berean, ikuskaritza eta araudia betetzeko batzordeak ziurtatu behar du barne-auditoretzako langileen profilak egokiak direla eta beren lana objektibotasunez eta independentziaz gara dezaketela.
- k. Barne Auditoretzako Funtzioaren arloko dokumentu operatiboak onartzea, zeinetan ez den beharrezkoa Kontseilu Errektorea inplikatzeko (prozedurak eta beste eskuliburu operatibo batzuk), bai eta arlo horretako politiketan esanguratsuak ez diren aldaketak egitea ere. Errektore Kontseiluak onartu behar dituen arlo horretako politikak eta barne-arauak direla-eta, Kontseiluari aurkeztu aurretik aztertuko ditu batzordeak politika eta barne-arau horiek.
- l. Aldez aurretik, Kontseilu Errektoreari bere eskumeneko gai guztien berri ematea, araudia betetzeari dagokionez, araudian, estatutu sozialetan eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduan aurreikusitakoak.
- m. Kontseilu Errektoreari laguntza eta aholkularitza ematea Erakundeari eragiten dioten Araudia Betetzeko Funtzioarekin lotutako Politikak definitzen eta ebaluatzen, bai eta horien esparruan sortzen diren arriskuak kudeatzeko ezarritako kontrol-esparruan ere.
- n. Araudia Betearazteko funtzioa gainbegiratzea, hargatik eragotzi gabe eginkizun hori Kontseilu Errektoreak zuzenean betetzea.
- o. Araudia Betearazteko funtzioari dagozkion eta Kontseilu Errektorearen esku-hartzerik behar ez duten agiri operatiboak onestea (prozedurak eta bestelako eskuliburu operatiboak), bai eta alor horretako politiketako aldaketa ez-nabarmenak ere. Kontseilu Errektoreak onartu beharreko alor horretako politikei eta bestelako barne-arau batzuei dagokienez, Kontseilu Errektoreari aurkeztu aurretik aztertu behar ditu Batzordeak, betearazte eta arautze-kulturarekin bat datozela bermatze.
- p. Araudia Betearazteko urteko programen funtzionamendua aldi berean behin ebaluatzea, eta haiek hobetzeko proposamenak egitea.
- q. Kontseilu Errektoreak agintzen edo baimentzen dion beste zeinahi eginkizun, Barne Ikuskaritzako eta/edo Araudia Betearazteko funtzioei dagozkienak.



# Arrisku batzordea

## Konposaketa

Izena	Kargua
Elena Zárraga Bilbao	Lehendakaria
Nagore Larrabeiti Libano	Kidea
Edorta Gil Sagarduy	Kidea
Maria Laura Rodríguez González	Kidea
Iván Marten Uliarte	Vocal

## Funtzioak

Arriskuen Batzordea 2014. urtean eratu zen, eta erakundearen arrisku-eraketarako ginenaren esparrua definitzearen eta arriskuen segimenduaren arduraduna da.

Arrisku batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian 11. bis artikulua daude jasota:

- Erakundearen egungo eta etorkizuneko arrisku-eraketako joera globalari buruzko aholkularitza eta arlo horretako estrategia aplikazioan Kontseilu Errektoreari laguntzea, bai eta erakundeak dituen edo izan ditzakeen arriskuak kudeatzeko, ikuskatzeko eta murrizteko politika zehatzak zaintzea.
- Bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezio-politikak entitatearen enpresa-eredua eta arrisku-estrategia aintzat hartzen ditutela egiaztatzea. Bestela, hori ordezkatzeko plan bat Kontseilu Errektoreari aurkeztea.
- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, entitatearen arrisku garrantzitsu guztiak kudeatu eta gainbegiratzeko.
- Kontseilu Errektoreari estres-testaren eta kapital-plangintzaren inguruko aholkuak ematea, arriskuei dagokienez.
- Arriskuak gestionatzeko eta barne-antolamenduaren eraginkortasuna bermatzeko baliabide egokiak esleitzen direla bermatzea.



- f. Kontseilu Errektorearen eta erakundearen artean arriskuen inguruko informazio-kanal eraginkorrak daudela ziurtatzea, eta Batzordeak berak eta Kontseilu Errektoreak arriskuei buruz jaso beharreko informazioaren izaera, kopurua, formatua eta maiztasuna zehaztea, Kontseilu Errektorearekin batera.
- g. Aktiboen balioztapena, kredituen kanpo-kalifikazioen erabilera eta arriskuei buruzko barne-ereduak gainbegiratzea.
- h. Arrazoizko ordainketa-politikak eta -jardunbideak ezartzen laguntzea. Aztertzea ea ordainketa-sisteman aurreikusitako pizgarrien politikak aintzat hartzen dituen arriskua, kapitala, likidezia eta irabazien probabilitatea eta aukera.

Indarrean dagoen legeriak, Estatutu Sozialek eta Kontseilu Errektorearen erabakiz esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea, erakundearen arriskuak kudeatzeko politikei dagokienez.



# Izendapen batzordeak

## Konposaketa

Izena	Kargua
Itziar Elgarresta Ibarondo	Lehendakaria
Iñigo López-Cano Fernandez de Betoño	Kidea
Xabier Sagarna Arrizabalaga	Kidea

## Funtzioak

2016ko apirilaren 29ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea formalki bereiztea eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduko 11. artikulua aldatzea.

Izendapenen Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11. b artikuluan) daude jasota:

- Kontseilu Errektoreko postu hutsak hornitzeko hautagaiak bilatu eta gomendatzea, Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak onets ditzan.
- Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea eta izendapen zehatz baterako behar diren eginkizunak eta gaitasunak deskribatzea, bai eta lanpostua betetzeko aurreikusitako arduraldia balioztatzea ere.
- Aldian behin (urtean behin, gutxienez), Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, eraketa eta jarduketa aztertzea eta egin beharreko aldaketak gomendatzea.
- Aldian behin (urtean behin, gutxienez), Kontseilu Errektorearen eta bertako kideen egokitasuna aztertzea eta ondorioak Kontseilu Errektoreari jakinaraztea.
- Aldian behin, Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko jorratzen duen politika berrikustea eta gomendioak ematea.
- Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan esleitzen zaizkion eginkizunak.
- Kontseilu Errektorean ordezkartzarik txikiena duen sexuarentzako ordezkartza-helburua finkatzea eta helburu horretara iristeko orientabideak lantzea
- Indarrean dagoen legeriak eta Estatutu Sozialek finkaturiko gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Errektorearen erabakiz esleiturikoak ere



# Ordainsarien batzordea

## Konposaketa

Izena	Kargua
María Esther Korta Errazkin	Lehendakaria
Beatriz Mauleón Sainz de Vicuña	Kidea
Edorta Gil Sagarduy	Kidea

## Funtzioak

2016ko apirilaren 29ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea formalki bereiztea eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduko 11. artikulua aldatzea.

Ordainsarien Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11.c artikuluan) daude jasota:

- Kontseilu Errektoreak eta Batzar Nagusiak ordainsariei buruz hartu beharreko erabakiak prestatzea, bereziki Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideen eta identifikaturiko beste langile batzuen ordainsariei dagokienez.
- Kontseilu Errektoreari laguntza eta aholkua eskaintzea entitatearen ordainsari-politika zehazteko, eta generoari dagokionez politika hori inpartziala izan dadin eta askotariko generotako langileen tratu-berdintasuna babes dezan.
- Kontseilu Errektoreari laguntzea ordainsari-politika, -jardunbideak eta -prozesuak kontrolatzen, eta ordainsari-politika betetzen dela bermatzen.
- Indarrean den ordainsari-politika egunean dagoela egiaztatzea eta beharrezko aldaketak proposatzea.
- Ordainsarien arloko kanpoko aholkularien izendapena berrikustea, Kontseilu Errektoreak aholkularitza edo laguntza jasotzeko halakorik kontratatzea erabakitzen badu.





- f. Ordainsari-politikei eta -jardunbideei buruz bazkideei ematen zaien informazioa egokia dela bermatzea, bereziki ordainketa finakoaren eta aldakorraren arteko ratioa handitzeko proposamenari dagokionez.
- g. Indarrean jarritako mekanismoak eta sistemak ebaluatzea, ordainsari-sistemak era guztietako arriskuak, likidezia- eta kapital-mailak kontuan hartzen dituela bermatzeko; ordainsari-politika orokorrak arriskuen gestio egoki eta eraginkorra sustatu eta horrekin koherentea dela ziurtatzeko, eta, era berean, entitatearen negozio-estrategiarekin, helburuekin, kultura eta balio korporatiboekin, arrisku-kulturarekin eta epe luzeko interesekin bat datorrela egiaztatzea.
- h. Emaidza-helburuen lorpena eta arriskuaren ex-post doikuntza-beharrak ebaluatzea, ordainsariak murrizteko eta jada ordaindutakoak berreskuratzeko klausulak aplikatzea barne.
- i. Askotariko egoera posibleak berrikustea, barneko eta kanpoko gertakarien aurrean ordainsari-politikek eta -jardunbideek nola erreakzionatzen duten aztertzea; arriskua ematea eta ex-ante doikuntza zehazteko erabilitako irizpideen atzera begirako probak egitea, benetako arrisku-emaizetan oinarrituta.